

«Ze partida jokatzenu duzu, beldurrarena ala duintasunarena?»

Pankarta baten atzean zaudela esan dezakete. Baina mundu baten aurrean bazaude?

Uxue Alberdi

Argazkiak: Dani Blanco

Marrastuiguzu koadroa: Gernika.

Lehen haurtzaroa. Oso zoriontsu izan naiz umetan. Zorte handia izan nuen gurasoekin, bakoitzarengandik gerora markatu nauen gauza inportante bana jaso nuen. Oso nortasun handikoak ziren biak. Aita oso teknikari ona zen, asmatzailea, eta zientziarekiko eta euskararekiko zaletasuna aitak eman zizkidan. Amak, ostera, alaitasun ikaragarria, maitasun handia eta jendearekiko tratu zabala, gozoa... Gernikako urteak lehenengo urteak izan ziren, beste mundu bat zen, oso herriko giroa, gizarte erlijiosoa, lagun giroa... Baina oso umea nintzen eta kontu horiek subkontzientean geratzen dira.

Kontzientziako koadroa: Eibar.

Eibarren egin nintzen, eta Eibarrek oso gauza inportantea eman zidan: klase guztietako jendea errespetatzeko ohitura. Eibarren denetarik zegoen, ideologikoki oso jende diferentea: sozialistak, ateoak... Garai hura oso erlijiosoa zen, baina Eibarren ordurako baziren ateoak, eta Eibarko kanposantuan bazegoen ataltxo bat elizara joaten ez zirenentzat. Hileta zibilak egiten ziren, “kura laikoa” zegoen... Teknikarako zaletasuna ere eman zidan Eibarrek. Euskara teknikoarekiko lotura bertan hartu nuen: aitak eskopeta kainoien tailerra zuen Eibarren eta euskaraz egiten zuten bertan, eta hori ere inportantea izan zen. Baina batez ere lagun giroa, klase guztietakoak nahastea...

Margotzen ari zarena: Bilbo.

Bilbo Euskal Herrian dauden kontraesan guztien gunea da. Bilbora 17 urterekin etorri nintzen, ikastera. Eskola honetara bertara (Ingeniaritza Eskola), 1965ean. Hemen Espainia osoko ikasleek ikasten zuten: andaluzek-eta. Palestinar bat ere bazela gogoratzen dut. Venezuelar bat ere bai, Mendizabal izena zuena. Frankismo garaia zen, sakona, eta hasieran denok erdaraz

egiten genuen, inori ez zitzaion euskaraz egitea bururatzen. Baina venezuelar hark, Mendizabalek, galdetu zidan: “Oye Etxebarria, tú ya sabrás euskera”, eta nik baietz. Eta ea irakatsiko ote nion. Eta nik baietz. Eta esan zidan, ea, nola esaten da euskaraz elektroia? Harri eta zur geratu nintzen, eta erantzun nion: hori ez da esaten. Inuzentea ni! Ez nekiela esan beharrean ez zela esaten erantzun nion, lotsagatik.

Orduan hasi zinen euskara teknikoarekiko interesa garatzen?

Buruari bueltaka hasi nintzen, ze Mendizabalek galdetu zidan: “¿Y por qué no se dice?”. Orduan hasi nintzen pentsatzen ezjakin hutsa nintzela euskaraz. Banekien euskaraz umetatik, baina... Orduan hasi nintzen neure kabuz alfabetatzen. Garai hartan hasi zen, gainera, girotxoa pizten: Anaitasuna, Zeruko ARGIA... Horrela autoalfabetatu nintzen, horiek irakurriz.

Eta euskararekiko kontzientzia hartzen?

Orduan hasi ginen klaseko euskaldun batzuk elkar ezagutzen, bazen Galdakaoko bat, Zaldibarko beste bat, Oiartzungo bat, tolosar bat... eta esan genuen: zergatik ez dugu gure artean euskaraz egiten? Horrela hasi ginen, baina a ze desastrea! Ez genuen elkar ulertzen! Ez geunden alfabetaturik eta bakoitzak etxean egiten

Nortasun agiria

Gernikan jaio zen 1948an. Gernikarra, eibartarra eta bilbotarra da. Industria-ingeniaritzan doktorea. Urte askoan fisika irakasle izana. 1992tik 2007ra Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle kaleratua izan da. Esperientzia hori *Historia de una pancarta* liburuan jaso zuten. Orain, euskara teknikoa irakasten du Ingeniaritza Eskolan. EAS, EHAS, HASI eta HB alderdietan militatu du. HBko parlamentari izan zen eta AuB-ko ele-duna. Euskara teknikoari eta zientziari buruzko hainbat artikulu, liburu eta hiztegiaren egilea.

- PERTSONAIA -

Joseba
Etxebarria

— Joseba Etxebarria

zuen bezala hitz egiten zuen. Baina poliki-poliki ohitu ginen. Eta soldadutzara denok elkarrekin joatea erabaki genuen, euskaldun guztiok.

Soldadutzara?

Guk milizia unibertsitarioak egiten genituen, udako hiru hilabeteetan bakarrik joaten ginen soldadutza egitera, eta gero unibertsitatara bueltatzen ginen. Ni Espainiako ejertzitoko ofiziala izan nintzen! *Mamma mia!* Hala zen! Eta guk, denok batera, Cadiza joatea erabaki genuen. 1968 inguruan izango zen. Ordurako euskaldun militanteak ginen, ordurako saltsatan sartuta... Iritsi ginenean ikusi genuen batek unibertsitatekoak geundela, eta bestetik, tropakoak, zerbitzuak-eta egiteko soldadu normalak. Haien artean ikaragarritzko analfabetismoa zegoela ikusi genuen, eta pentsatu genuen irakatsi egin behar geniela irakurtzen eta idazten. Bigarren urtean alfabetatze ikastaroa antolatu genuen, jendeari gazteleraz irakurtzen eta idazten irakasteko. Eta pila bati erakutsi genien. Azken egunean ikasle izan nuen bat etorri zitzaidan, ni baino buru bat altuagoa, izugarritzko morroskoa, eta esan zidan: “*Oye, Etxebarria, estoy contentísimo. Ya he aprendido a leer y a escribir y ahora me voy a presentar a Policía Nacional*”. Eta “oso ondo!” esan nion nik, oso ondo iruditzen zitzaidala. Gerora askotan pentsatu dut tipo horrekin. Ikastolan ere izan nuen fisikako klaseak eman nizkion ikasle bat ertzain sartu eta torturatzailer modura ibili zena. Eta orduan *Eginen* artikulua bat idatzi nuen: “Ez dira nik irakatsiak”. Esanez, bale, ni harro nago irakurtzen eta idazten erakutsi izanaz, fisika irakatsi izanaz. Baina bestea ez nien nik irakatsi. Denok ditugu kontraesanak. Ni ere ejertzitoko ofiziala izan nintzen: Burgosko epaiketa izan zenean ni Gasteizen nengoen ofizial modura praktikak egiten! Eta orduan Francoren gerra ministroa etorri zen, teniente coronel Castañón de Mena, eta nik hantxe agurtu behar izan



nuen, militarki, eta eskua eman nion. Bizitza oso korapilatsua da, eta gure nortasuna, printzipioak eta abar eraikiz doaz.

Nola hartu zenuen kontzientzia politikoa?

Batez ere euskararen bidetik. Esaten nuen, euskalduna naiz, eta zergatik ez dakit ondo euskaraz? Kontuan izan euskara batua ere garai hartan hasi zela sortzen. Gauza horiek guztiak batera pasa ziren eta ni erdian harrapatu ninduten. Karrera amaitu nuenean bi edo hiru gauza agertu ziren batera, oso garrantzitsuak: teknika energetikoak ikasi nituen, teknologia nuklearra. Karrera bukaerako proiektua erreaktore nuklear baten parametroen kalkulua izan zen. Eta ikaragarri gustatzen zitzaidan, ingeniari nuklearra izan nahi nuen. Baina orduan sortu zen euskal kostalde nuklearraren aurkako mugimendua, eta mugimendu politiko-soziologiko handiagoan sartzen hasi nintzen. Irakurtzen hasi nintzen, eta konturatu nintzen, bai, energia nuklearra oso polita zela, baina txanponak bazuela beste alde bat. Eta beste alde hori ikertzen hasi nintzen. Eta ikusi nuenean mugimendu antinuklearra zegoela, hor sartu nintzen. Orduan hasi zen Lemoizko istorioa ere. Eta hor zegoen Burgosko epaiketa. Eta euskara.

Garaitsu hartan hasiko zinen irakasle unibertsitatean, ezta?

1971n, eta apunte guztiak euskaraz egitea erabaki nuen. Nahiz klaseak gazteleraz eman, 71tik bertatik apunte guztiak euskaraz ematen nituen nik. 79an hasi ginen unibertsitatean klaseak euskaraz ematen, Leioan. Baina euskararekin bakarrik ez zen ezer egiten, eta gauzak konpontzeko politika behar zen. Orduan hasi nintzen politika giroan sartzen. Interesatu zitzaidan alderdi bat sortu zen Ipar eta Hego Euskal Herrian: EAS. Jende asko bildu ginen alderdi horretan. Gero alderdi hori EHAS bihurtu zen, eta geroago HASI. Eta denbora horretan guztian militantea izan nintzen. Baina dena paralelo, irakaskuntzarekin uztartuz, sekula ez naiz liberatua izan. Nik, gainera, zortea izan dut bai bertsotan, bai politikan, bai euskalgintzan ni baino zaharragoak ziren oso pertsona bikainengandik ikasteko. Santi Brouard, Telesforo Monzon, Jon Idigoras... Denak ezagutu ditut, gertutik. Zorte ikaragarria da hori.

Orain hiru urte Eukal Herriko Unibertsitateko irakasle “kaleratua” izateari utzi zenion. Orain irakaslea zara. Zer izan da berriro eskolak ematera itzultzea?

Zoriontsu sentitzen naiz. Gaztetuta, ilusio handiz. Beti buruan izan ditudan gauzak egiten ari naiz, dakidana egiten dut. Eta satisfazio handi bat dut: borroka batean parte hartu dut, eta



zenbat sufritu dudan ez dut gogoratzen. Konturatzen naiz prozesu batean hartu dudala parte eta, ez noski guri esker bakarrik, baina guri esker ere badugu lege berri bat, Euskal Herrikoa bakarrik dena. Gu irakasleri propioaren alde borrokatu ginen, eta lortu da; lortu nahi genuen irakasle mota bat funtzionario ez zena, eta posible da. Ibilbide osoa analizatzen dut, borroka hori aspaldi hasi baitzen. Prozesuari begiratu behar zaio beti. Politikan ere bai.

Gaur egun, etekinak berehala lortu behar diren honetan, ia pentsaezina da inork hain borroka luzean iraun dezakeenik.

Aldez aurretik esan izan balidate 15 urtez egon behar izango nuela, agian ez nintzen joango. Baina *a posteriori*... 15 urte izan dira? Ez naiz konturatu! Benetan diotsut. Askok galdetzen didate ez ote dudan denbora galduaren sentsaziorik. Eta ez, aldrebes, gauza asko ikasi ditut 15 urtean, bestela ikasiko ez nituzkeenak: pertsonen buruz, harremanen buruz, izaerari buruz... Jakina denbora hori beste gauza batzuk egiten erabil nezakeela, baina horrelakoa da bizitza: behin bizita, hobe duintasunez bizi, eta ni sentsazio horrekin geratzen naiz. Guk ez genuen uste 15 urte izango zirenik, guk esaten genuen konponduko dugu eta eutsi egin behar zaio, baina ez zen konpontzen. Nik badakit kanpotik harrigarria dirudie-

la, baina ni barruan egon naiz, eta barrutik gauzak desberdin ikusten dira beti.

Zer izan da zuen borrokaren ondorioz lortu duzuen, eta zer geratu da bidean?

Helburu politiko batzuk markatu genituen. Bat: Euskal Herria diferentea da. Nire borroka politiko guztietan dago Euskal Herriaren ideia. Autodeterminatzeko lehenengo autoafirmatu egin behar da. Politikoki eta pertsona modura. Ni hau naiz esan behar da. Horregatik, nik unibertsitatea euskalduna izatea nahi nuke. Zergatik? Behar dudalako. Eta horretarako antolakuntza propioa izatea ezinbestekoa zen, antolakuntza propioa irakaskuntza sistema osorako. Euskaldun izan nahi duzun momentutik antolatu beharra daukazu, eta non? Ba, zauden lekuan, eta irakaskuntzan nengoen ni, unibertsitatean. Antolatu egin ginen eta proiektu bat egin genuen: irakaskuntza sistema propioa Euskal Herrirako. Hasi eta bukatu. Guri esan ziguten: bizitzan gauza inportante guztiak dira bai ala ez. Orain ere berdin. Orain, bertsio moderno da: kondenatzen duzu? Bai ala ez? Ez? Ba, orduan kanpora. Gurea zen: funtzionario izan behar duzu, bestela ezin zara unibertsitatean egon. Izango zara? Bai ala ez? Ba, ez, ez dut nahi. Orduan zer egin? Orduan derrigor arazoa sortzen da.

Desobedientzia zibilaren fruituak jaso dituzue. Gu baino desobedienteagorik! Guk gaizto fama daukagu. Eta nik beti esaten dut: nik bizitzan kobratu baino ez dut egin! Ez diot inori eskua altxatu sekula. Eta egurretan kobratu? Behin eta berriz. Mila aldiz jo naute: unibertsitatean, kalean... Eta desobedientzia horixe da: eztabaida beste maila batean planteatzea. Hau zergatik? Legeak esaten duelako? A, ba, aldatu legea. Hori da gure planteamendua. Hori izan zen intsumisioa. Hori da unibertsitatean egin genuena. Eta alternatiba planteatu genuen, beste lege bat proposatu genuen. Eta lege horretatik ez dute dena hartu, baina %90 bai.

Guk ez degu eskatzen bostertzeke,
eta are gutxiago mozteko, beste lanerik,
gurea bizirik uzteko baskik.

Ina Higel Barandiaran

Mank.

Sakana Mankomunak

www.sakana-mank.com

info@sakana-mank.com

Zerbitzu Orokorrak 948 464 867 Faxa 948 464 853

Euskara Zerbitzua 948 464 840

Klasi Zerbitzua 948 464 866

Etxebizitzak Zaharerritako Bulegosa 948 576 203



Eñaut Elorrietak:

“Irakasle izan nuen Joseba. Ez zioten ikasgelan fisika irakasgairik ematen uzten baina ikasgelatik kanpo eman zizkigun irakaspenik handienak, unibertsitatean ikasi nituen inportanteenak. Duintasuna, integritatea, ausardia eta maitasuna zerion, eta erasorik oldarkorrena ere norbere buruari muzin egin gabe garaitzen zela erakutsi zidan. Aurrera eraman zuten borrokaren harira, gertaera oso gogorren testigu izan ginen garai hartan Leioan, eta biharamunean, oraindik sabela bere lekura ekarri ezinik elkartasuna adieraztera hurbiltzen ginenean, iraultza-arma suntsiezinak umorea eta zoriontasuna zirela erakusten zigun. Beti irribarrez hartzen gintuen unibertsitate atariko haien bizitza-fakultatean”.

Jexux Mari Zalakain eta zu eskolak ematera itzuli zineten, baina beste hiru irakasle kaleratutik ez itzultzea erabaki zuten (Antton Azkargortak, Jose Luis Herrerok eta Enrique Lopezek). Nola-koa da une honetan zuen arteko harremana? Pankarta oso esperientzia interesgarria izan zen, gogorra, eta denborarekin higatu egin zen, eta momentu batean, orain bospasei urte, ikusi genuen ezin genuela kolektibo gisa funtzionatu. Elkarren ondoan jarraitzea erabaki genuen, gure artean borrokan ez hastea, baina erabakiak aparte hartzea. Legea egin zenean guk gauza bat erabaki genuen eta eurek beste, baina konforme gaude gure borrokaren helburu politikoak lortuta daudela.

Duintasuna. Zer esan nahi du hitz horrek zuretzat?

Koherente izatea. Printzipio batzuekin eta ideia batzuekin. Eta zure ideia, printzipio edo idealen kontra behartzen zaituenari aurre egitea. Zeu izateari ez uztea da duintasuna. Askotan, kanpoko batek, boteretsutzat dugunak –indarra, armak, dirua edo administrazioa bere esku dauzkalako– zeu izatearen kontra behartu nahi zaitu. Horregatik da duintasuna zeu izateari ez uztea. Eta sufritu egin behar bada norbera izateko, ba, eutsi. Ahal den neurrian. Eta duintasunak ez du harroa izatearekin zerikusirik: ezinean bazaude aitortu, ez da ezer gertatzen.

Torturatuen duintasuna goraipatu izan duzu hainbat artikulutan.

Jakina, eutsi baitio. Sufritu du, baina zeren aurrean sufritu du? Besteak ez zion utzi nahi benetan zena izaten, eta sufritu du, baina eutsi dio. Pasatzen dena da hautsi egin zaitezkeela, eta normala da. Baina nik errespetu ikaragarria diet mundu guztiko torturatuei. Torturatu guztiek beren nortasuna mantentzearen alde sufritu dute. Horren aurrean ez dut hitzik.

Beldurrak ze paper jokatzen du hor?

Beldurra da giltza. Denok daukagu beldurra, baina beldurrak ez du ezer justifikatzen. Beldurra duintasunaren kontrako gauza bat egiteko aitzakia modura erabiltzen denean, gal-

68ko maiatza

“Urrun geratu zitzaidan. Ni gehiago markatu ninduen Burgosetik Parisek baino, distantziagatik. Paris urrun geratzen zitzaidan, baina Burgoskoa diferentea izan zen, Euskal Herriko kontua zen, informazio guztia neukan, ni ere helduagoa nintzen, eta Eibarren oso gertakari gogorrak izan ziren: mutiko bat balaz hil zuen poliziak manifestazioan. Roberto Perez Jauregi. Horrek asko hunkitu gintuen. Orduan hasi ginen zerbait egin behar zela pentsatzen. Txabi Etxebarrieta hilketa ere 68an izan zen, eta hori ere ikaragarritzko kolpea izan zen. 68an izan zen lehenengo shocka, gero Burgosko epaiketa 70ean... Milaka atxiloteta... ordurako denok geratu ginen ukituta”.

duta zaude. Beldurratik egiten dira astakeria guztiak. Jakina, muga hor dago. Ze torturatua izan bazara... Torturatua izan denak badaki une batean heriotza desiratzen dela. Baina bi giltzarri daude bizitzan: beldurra eta inbidia. Ni polizia baten aurrean ipini naizenean beldurra izan dut. Orain bete da urtebete Anparo Lasheras eta biok tanketa baten aurrean egon ginela. Bi kakanarru, inolako indarrik ez daukagunak. Hantxe zetorren ertzainen *furgona* aurrerantz eta gu lurrean eserita. Eta begiratu nion Anparori, eta Anparo “andra debila” da, eta ni “gizon eskasa”, eta esan nion: “Zer egingo dugu?”. Eta esan zidan: “Mugitu ez”. Eta ez ginen mugitu. Hantxe gelditu ginen eta tanketa gelditu egin zen. Beldurrak geunden, kaka praketan! Baina eutsi egin genion, duintasunagatik. Eszena hori bera Israelen gertatu zen handik gutxira. Neska bat tanke baten aurrean eserita gelditu zen. Diferentzia bakarra izan zen: hura zapaldu egin zuten. Eta hil. Hori pentsatzen dudak bakoitzean pentsatzen dut: a ze duintasuna! A ze indarra! Eta beldurra? Ikaragarria izango zuen! Baina zer partida jokatzen duzu? Beldurrarena ala duintasunarena? Beldurra da boteretsuak erabiltzen duen arma zuk zeure burua saltzeko. Beti izan da hala. Hartu historia, Sokratesengandik hasita, Greziako mito guztiak: Antigonarena. Oraintxe presoekin gertatzen ari dena. Antigonari ez zioten utzi bere neba lurperatzen, baina lege guztien aurka egin zuen. Inportantea Antigona da, Creonte, estatua, pikutara joan zen. Hartu Prometeo, igual-igual. Prometeo da gaur egungo Euskal Herria. Mito eternalak dira, behin eta berriro errepikatzen dira.

Nola ikusten duzu gaur egungo Euskal Herria?

Ba, Prometeo. Eta Prometeok dauka soluzioa. Prometeoren istorioa da: Zeus Jainkoa (estatua) dago alde batetik, baina Prometeok sekretua daki; Prometeok badaki Zeus hil egingo dela. Eta orduan Zeusek esaten dio: “Nork hilko nauen esaten badidazu, libre utziko zaitut”. Baina Prometeok erantzuten dio: “Ez, ez, lehenengo utzi libre, eta gero hitz egingo dugu”. Apustua beldurraren parametroetatik kanpo kokatu behar da. Euskal Herria? Nola da Lukanor kondearen istorioa, biluzik zihoan erregearena? Espainiako klasikoa da hori. Espainia horixe da. Gu gara egia esaten dugun baztertuak. Guk diogu “erregea biluzik doa!”, beste guztiak ez dira ausartzen, eta isildu egiten dira, dena kenduko dieten beldurrez. *Mutatis mutandi*, historia bera da, printzipio bera delako beti. Giltza beti da beldurra. Baina hori eternala da, gizakiaren historia eternala. **n**

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarriketaren bertsio luzea.